

Abuztuaren 14a

EZKONTZAKO EGINBEHARRA

Hondartza ertzean paseatuz hurbiltasun gehixeago izango duten ilusioarekin antolatu du eztei-bidaia Segundok. Emazte berria txunditu nahian, Biarritzeko Hôtel Miramar-eko ezkon-suitea erreserbatu du, hondartzaren oin-oinean. Rivierara joatea proposatu zion lehenengo, Matildek ez baitu itsasoa inoiz ikusi, baina Mediterraneo itsasertza urrutiegi zegoela erantzun zion.

Bartzelonako lantegian kanoi berriak egiten hasita daude eta, armada alemanari saltzeko asmoz, haien berri emateko baliatuko du Segundok egonaldia. Auto-salmentak asko jaitsita daude Espainian eta, ziur aski, Hitlerren gobernu armaren beharrez egongo da sobietarren aurka borrokan jarraitzeko. Herman Kummer du izena harremanetan jarri behar duen bitartekariak.

Erregimenaren konfiantza eta begikoa izanik, arazorik gabe eskuratu du Gobernazioan muga igarotzeko baimena. Senar-emazte berriek Hispano-Suiza zurian egin zuten atzo bidea, ehun eta berrogeita hamar kilometro luze. Autoa hotelaren sarreran utzi eta handiuste sartu zen Segundo hallean, emaztearen besotik helduta, mandatu-mutilari ekipajeaz arduratzeko agindu ondoren. Matildek Balentziagaren puntuzko soineko arrosa argi bat zeraman jantzita, Parisetik berriaz ekarria,

Afalostean, nekearen aitzakiarekin ekidin zuen Matildek ezkontzako eginbeharra, eta zapuztuta baina, Segundok ez zuen hartu nahi izan emazte berriaren gogoz kontra berezko eskubidez galdegin zezakeena. Gaur, ordea, afalondoren, logelara erretiratu direnean, Matildek badaki ezingo diola Segundoren sexu-grinari itzuri egin.

Senarra zain dauka ohean eserita. Bainugelari, ispiluari begira, Matildek zilarrezko perla kendu eta bitxiontzian gorde ditu. Soinekoa eta barruko arropa erantzi eta satinezko kamisoi zuria jantzi du. Ia ilunpetan dago gela; ohe-mahaiko argi txiki batek argitzen du ozta-ozta. Matilde ohean sartu eta geldigeldi geratu da. Segundok arropak erantzi bitartean, begiak alboratu ditu: ez du inoiz gizonezko biluzik ikusi. Ohean sartu orduko nabaritu du senarraren larruazal iletsuaren igurtzia. Segundo musuka hasi zaio mihia ahoan sartuz. Ezpain bustiak lepo aldean jarri eta bizar hasiberriak azala urratzen dio; nazka ematen dio zigarro usainak. Segundo kamisoiaren botoiak askatu eta eskuekin bularrak bilatu dizkio. Saiatzen da titiburuak ferekatzen baina Matildek eskuak kentzen dizkio. Beste itzulingururik gabe, beraz, oldarrez jarri zaio Segundo gainean eta, kamisoi altxatzean, izterrak ireki eta belaunak tolestu behar ditu Matildek, bulkadei amore emanez, zakila hankartearen bultzaka duela. Ihes egin nahiko luke; lehor dago eta gerria kurbatzen du minez. Segundo aldakei eraginez kulunkatzen da atzera eta aurrera, arnasots gero eta larriagoz, zarrastak aiztoa balitz bezala emazte estreinatu berria zauritu duen arte. Matildek ez du zirkinik egin, amorrutako malkoei eusten dien artean. Intziri motz bat eginez, Segundo bere gainean erori da oso-osoan.

Gainetik kentzeko bultza egin eta, askatzean, bainugelara altxatu da Matilde. Alura eraman ditu hatzak: hankarte minbera dauka. Hazi eta odol hondarrak garbitzean, negarrari eman dio saminki, zotina eskuoihal batean isilduz. Segundo ondo al dagoen galdetu dio. Ez du negarrez ari dela jakiterik

nahi, eta erantzun dio ahotsean ikararik gabe itzali dezala atzera argia. Kulerook eta bularretakoa jantzi eta kamisoiaren botoiak goraino lotu ditu. Ilea txukundu eta hautsak eman ditu aurpegian. Senarrak ez du ez orain ez inoiz umiliatuta ikusiko. Ohera itzuli da, gertatutakoa sekula jazo ez balitz bezala. Ezkontzako eginbeharra zen eta konplitu du.

Bart gaueko lehen aldiari aipamen txikienik egin gabe, senar-emazteak logelan gosaltzen ari dira, mutu biak. Esnatu berritan, Matildereren aldarte txarrak eta erantzun petralek atsekabetuta daukate Segundo; bart ez zion batere desiorik antzeman. Matildek gosaria jasotzera etorri den gelazainari sartzeko baimena emateko bakarrik hitz egin du. Neska gazteak estropezu egin du atea irekitzean eta erretilua irauli zaio, portzelanazko pieza batzuk apurtuz.

Egongelara jaitsi direnean, Matilde zerbitzariaren baldarkeriaz kexatu zaio hoteleko zuzendariari. Mahaietako batean, egunkaria irakurtzen Herman Kummer dago eta, bikotea ikusi duelarik, hurbiltzeko keinua egin eta berarekin esertzera gonbidatu ditu. Matilderi eskuan muin eginez, beraren edertasuna goraiatu du. Albait irribarrerik limurtzailleena eskaini dio Matildek. Segundok, mintzagai egokiren bat hartu nahian, Alemaniara bidean Frantziara iristen ari diren Dibisio Urdineko tropak aipatu ditu: "Hilabete da Iruñeko tren-geltokitik soldaduz betetako konboi militar bat irten zela". Gerra kontuak beste baterako uzteko esanez moztu dio bi metro garai izango den gizon lerdenak, eta Matilderi zuzendu zaio, itxurati: "Esadazu, gustuko al duzu Biarritz? Ezkon-bidaiaz gozatzen ari al zara?". Segidan, hiriaren edertasuna goraiatu du, Europako giro liskartsuan paradisu bat dela azpimarratuz. Mahaitik altxatu aurretik, arratsaldeko hitzordua gogorarazi dio Segundori.

Bakarrik gelditu direlarik, hondartzara joatea proposatu dio Segundok, oraindik bainujantzia ez duela estreinatu gogoratuz. "Ez duzu pentsatuko bainubata kenduko dudarik", dio Matildek zital. "Hemen ohiturak ez dira Espainian bezain zorrotzak", erantzun dio Segundok. "Ba, izan beharko lukete", arrapostu dio Matildek gogor. Bainujantzian doan emakume bati begiratzea perbertsio bat zela pulpitutik apezpikuari esaten entzun zion egunean, Segundori sinestezina iruditu zitzaion tamainako zentzugabekeria, baina honezkero ondo ikasia du bere iritziak isiltzen, emaztearen begietara gizon galbideratu bat eman nahi ez badu.

Aperitiboaren orduan, hondartza-ertzean paseatzen diren frantsesita nasaia gogotik larrutu ditu Matildek, batez ere hurren kargu dauden zaintzaile gazteak. Gainera, emakumezko soldadu alemanak benetan desatseginak iruditu zaizkio: "Uniforme gris lakar horiek jantzita, emakume direnik ere ez dute ematen".

Hiru egun baino ez dira igaro, eta Matilde kexu da itsasertzeko hotz-giroaz; hezetasunak buruko mina eragiten omen dio. Itzuli egin nahi du, lehenbailehen; eguna aurreratzeko eskatu dio Segundori. Isilean, badu kezka bat erraiak erretzen: haundundu ote den.

Mugan, Guardia Zibilak bikotearen agiriak aztertu eta aurrera egiten utzi die. Segundok atsekabeturik gidatzen du autoa etxerantz. Azken ekinaldi bat egin du emazteari atsegin emateko: "Matilde, gustatuko al litzaizuke autoa gidatzen ikastea? Nahiko bazenu, erakutsiko nizuke". "Ez esan tontakeriarik" aurpegiratu dio. Bere baimenarekin eragozpenik ez lukeela izango esan dio Segundok. "Ohitura onek galarazten dute, ordea. Nik badaukat, behar izandakoan, autoan eraman eta ekarriko nauen senarra. Ez al da hala?", egin dio desafio Segundori.

Abenduaren 10a

AMA ETA EMAZTE ONA

KUKU-ERLOJUAK laurak jo baino zertxobait lehenago ireki die atea. “Zu izango zara Luisa” agurtu du Angelak etxeko kontuen jakitun dela erakutsiz, berokia luzatzen dion bitartean. Matildek bidea erakutsi eta Angelak etxeko gela guztiak ikuskatu ditu zoko-miran, Felicitas atzean dutela: altzari, lanpara, tapiz, apaingarri eta gortina guztiei, banan-banan eman die oniritzia; aitzitik, dela sukaldeko arasaren egokitasuna dela ohe-estalkiaren kolorea gustatu ez zaizkionean, koplarik erabili gabe adierazi du bere desadostasuna, “ezagutzen nauzu: nik ez daukat mingainean herdoilik” erantsiz, adeitasun eza eta egiazaletasuna nahasteko duen ohiturari jarraituz. Matilderi ez zaio gustatzen etxean jendea hartzea, baina Angela ekin eta ekin ari zitzaion elkar ikusten zuten bakoitzean, eta azkenean, agindu behar izan zion etxea erakusteko merienda bat antolatuko zuela. “Etor dadila Felicitas ere –erantsi zuen eguna eta ordua zehaztu ondoren–. Gazte garaiko kontuak oroituko ditugu”.

Luisak oso-osorik eman zuen atzo eguna gela guztiak txukuntzen, astelehenetako garbiketa orokorra egun batez aurreratuz. Clara joan zenetik, lana biderkatu egin zaio: etxeko lanez gain, bere kargu ditu aurki bi urte beteko dituen Pablo eta Amparo. Echalucetarrenean zerbitzatzen hasi zenean, ez zuen irudikatu ere egingo alabaren etxean neskame bukatuko zuenik. Ilobek Iruñera ekarri zuten egunean, ohartarazi zioten, gustura ez bazegoen, etxera itzultzeko. Egun hartan, hain justu, ikusi zuen azkenekoz Jesus bizirik: ilusioz beteta Gazteluko Plazan, Herriaren Etxean ezagun batzuekin geratuta zegoen eta presaka agurtu zuen izeba. Martinek kontuz ibiltzeko ohartarazi zion anaia gazteari, hirian giro nahasia igartzen zela; arma-hotsak entzuten hasita zeuden ordurako. Urtebetera, gerrak eztanda egin zuenean, miseria eta beldurra zabaldu ziren nonahi, eta Luisak nahiago izan zuen hirian neskame geratu, koinatuaren bizkarretik bizi baino.

Matilde konturatuta dago Luisa lanez gainezka dagoela; ezkondu zenetik, arropak tolestu eta armairuak txukundu beste zereginik ez du bere gain hartu; halere, ez du beste neskamerik hartuko. Lasaitu ederra hartu zuen barru-barruan Clara urtebetez etxean eduki ostean, arrastorik utzi gabe joan zenean. Ezin zuen haren izaera menderaezina jasan. Probokatu egiten zuela iruditzen zitzaion.

Egongelara sartu direnean, mahaiaren bueltan eserarazi ditu Matildek gonbidatuak. Hiru emakumeek mojen garaitik ezagutzen dute elkar. Matilde eta Felicitas adin berekoak dira, gelakideak, eta Angela neska guztiek ezagutzen zuten, hiru urte zaharrago izan arren. Hamabi urte besterik ez zituen eta ideia karlisten defendatzaile sutsua zen, moja guztiek zeukaten ikasle maite eta kuttuntzat, haren buru argia ez ezik, konpromiso politikoa eta jaiera kristaua ere etengabe goretsiz. Angela eskolako neskatila guztien eredu zen, Matildek halako miresmenik ez bazion ere.

Matilde antzerki saio apurretan nabarmentzen zen, eta dantza-pauso batzuk emateko aukera ematen bazioten, ez zuen aukerarik galtzen bere talentua erakusteko. Amak, ordea, ez zuen begi onez ikusten dantzarako zuen zaletasuna, alabaren txolinkeriak iruditzen zitzaizkion; fantasiatsu hutsa zela

aurpegiratu eta hamaika bider egin zion Angelari jarraitzeko gomendioa. Horrenbestean, Zirkulu Karlistara eramaten hasi ziren gurasoak, eta hiru *margarita* gazteak elkarteko jardueretan parte hartzen hasi ziren, Angela bidegile, Felicitas Angelaren onspena irabazi nahian, eta Matilde dibertimenduz. Egokiera hartan estutu zituzten harremanak hiru neskek, Echaluce eta Ezpeleta neba-arrebak lagun minak bihurtu ondoren Felicitas bazter samar geratu zen arren.

Errepublikak aldarrikatu zen urtean, Matildek hamabost urte zituen eta handik aurrera, ezkertiarren politikari aurre egiteko, zeregin berriak izendatu zitzaizkien emakume karlistei, are gehiago Baleztenatarren etxeari eraso egin eta, hirian liskarrak eta istiluak areagotuta, tradizioaren defentsan gehiago konprometitzeko eskatu zitzaientetik: propaganda banatzen hasi ziren, hitzaldiak antolatzen eta mitinetara joaten. Lekunberriko egoitzaren inauguratze ekitaldira joateko irten zen Matilde aurrenekoz hiritik, giroaren suharrak eta herioak kilikatuta. Angela zen hizlarietako bat; Felicitas Ramirezek ordurako nekez disimula zezakeen zion bekaizkeria; Ezpeletatarra aspaldiko leinu bateko oinordekoa zen, eta berak, ahaleginak eginda ere, ezingo zuen hori inoiz berdindu. Felicitasek gordeta dauka ekitaldia jaso zuen egunkari-ebakia: Angela gaztea taula gainean, mikrofonoan jendeari hitz egiten.

Matilde ohitu egin zen garai berrietako tentsio eta nahasmendura, militarrek armatan altxatu aurretiko sanferminetan giroa zertxobait nasaitu zen arren. Zezen suzkoa lehertzearekin batera hiria, itxura batean, alaitasunean murgildu zen, nebarekin Kasinora joateko amaren debekuak Matilde ernegatu bazuen ere. Kasinoko balkoiak argiz apainduta, inbidiaz behatu zituen Matildek neska-mutil gazteak, gaueko soinekoak eta esmokinak jantzita, eskailerak, alfombra handi batek estaliak, igo eta, balkoira aterata, plazan, oihu artean, bengalak askatzen eta lastozko kapelak hegaldatzen zituzten peñak agurtzen. Javierrek biharamunean esan zionez, Donostiako *Seven Young* jazbanak sekulako giroa jarri zuen.

Kasinoko dantzaldian estreinatu ez zuen soinekoaren barrena konpontzen ari zela, Luisari nondik laburtu seinalatzen ari zitzaion unean, eman zion amak altxamenduaren berri. Luisak orratzak jartzen jarraitu zuen, besterik erantsi gabe; ez zuen umea estutu nahi izan, bestela ere, amak behar baino gehiago larritzen zuelakoan. Gogorregi hartzen zuen, Luisaren irudiko. Soinekoa erantzten ari zela sartu zen arrapaladan neba gelan, Matilde haserraraziz. Ohi zuen ahoberokeriaz kontatu zien erreketen talde bat erreka ertzera hurbildu eta emakume batzuk aterarazi zituztela: "...urdanga lotsagabeak biluzik bainatzen ari ziren". Matilderi etxetik irtetea galarazi zioten, liskarren batek edo, are okerrago, tiroketaren batek harrapa zezakeen beldur, eta zeharo aspertuta zegoelako kexu eman zituen ondorengo egunak.

Hiru tertuliakideak eguraldiari buruzko azalpenetan ari direla sartu da Luisa kafesnea edo txokolata nahi duten galdetuz. Hirurek irribarrez hobetsi dute txokolata, eskasia garaiotan badakite zein zaila den tableta bat kakao eskuratzea. Eguraldiaren gaia agortuta, beste hizpideren bat ateratzeko puntuan daudenean itzuli da Luisa erretilua eskuetan. Matilde neskatila zenetik gozarazi duen bizkotxo bustia mahai gainean jarri duenean, pastelaren itxura paregabea goraiatu du Angelak ahots lausengariak. Matildek ura ekartzeko gogorarazi dio Luisari.

Aurreneko mokadua ahora eramatearekin batera, neskame prestu bat izatearen zailtasuna aipatu du Angelak, “eta sukaldari ona, zer esanik ez!”, jarraitu du bigarren mokaduari heltzeko presaz. Eta segidan kontatu du azken neskamea kaleratu egin behar izan duela orain gutxi: “Blancari mesede egiteagatik egin nuen. Villa Teresitan urtebetez egon ondoren, zer moduz moldatzen zen proba egiteko eskatu zidan –Matildek askotan entzun izan dizkio Blancari harrera-etxeko emakumeen gorabeherak–. Ez zen neska txarra, baina zorria baino alferragoa zen”. Kontatutakoaren arabera, Erriberriko etxe on bateko alaba zen, haurdun geratu eta gurasoek Villa Teresitara eraman zuten lotsaizuna ezkutatzeko. Inork ez du erditutako haurraren galderarik egin.

Angelak seme-alabak beste hizpiderik ez du: “Haurdunaldi guztietan hartu dut –dio bosgarren aldi honetan salbuespenik ez duela egingo azpimarratuz–; indargarri paregabea da –Hipositos xarabeaz hitz egiten ari zaio Matilderi–. Amaitu orduko bidaltzen dut Serapio botikara beste botilatxo baten bila”. Urari zurrutada luze bat eman ondoren, ziurtatu die bi emakumeei seme-alabak hazten ez duela makalaldirik inoiz sentitu.

Angelaren sabelaldeari eta bular puztuei begiratu die Matildek: bistan da azken urteotan nabarmen gizendu eta zahartu dela. Matilderi sinesgaitza egiten zaio amatasunak halako bizi-poza eta zoriona ematen dizkionik. Nekea eta itolarria sortzen dizkio haren egunerokoari buruz hitz egiten entzuteak. Angela haurduntzen jarraitzen badu, aurki emango dio Gobernu Zibilak Serapiori hiriko aita familiakorik ugalkorrenaren saria, meritua Angelarena bada ere, pentsatu du Matildek. Ziur dago emakume askok aukeratu ahal izango balute, edota haurdunaldia ekiditeko modua, ama izateari uko egingo lioketela. Matildek kanpora botatzea beste erremediorik ez du ezagutzen, baina iristen da egun bat non asuntoa ezin duen saihestu, eta behartuta sentitzen den. Inoiz edo behin Segundori haragi-grina igarri diolarik, “egun horietan” dagoela esanez eman dio ezezkoa. Beste aitzakiarik jarri ezin izan dionean, aiuta jarri izan du jo ondoren, bete ez dezan otoi eginez.

Lekuz kanpo sentitzen den Felicitasek xarabearen iragarkia egunkarian ikusita dagoela dio. Konformidaderik gabe baina etsipen kristauez onartu du senargabe geratu izana, eta, familiari beharrean, bizitza kausari eskaintzea erabaki du. Emakumeen Sekzioko kide gogotsu eta langileenetako bat bihurtu da. Angelak, berriz, karlismoaren ideiei leial, ez du begi onez ikusi tradizionalistak Mugimenduaren alderdi bakarrean integratzea eta horregatik Felicitasek behin baino gehiagotan jaso du haren destaina. Angelak militantzia utzia du, eta gorputz eta arima dago familiari emana. Seme-alabei tradizioaren balioak utzi nahi dizkie oinordetzan, berari utzi zioten bezala. Traiziotzat hartzen du Felicitasek haiei uko egin izana.

Felicitasek badaki Angela amorraraziko duela baina ezin dio bulkadari eutsi: “Azkenean, Zirkulua itxi behar izan dute”. Txokolateak ez bezala, bihotzerrea eragin dio epaiak, baina Angelak ez du neurritasuna galdu: “Itxiko dute egoitza, bai, baina gure seme-alabek tradiziotik edoski dezaten ezingo dute ekidin”, erantzun dio bere sabelalde puztua nabarmenkeriaz igurzten duelarik.

Ekainaren 20a

EL HOGAR Y LA MODA; VOGUE

BEROAK itota dagoela eta baso bat ur eskatzera joan zaio sukaldera jostuna. Luisak kanila ireki aurretik, ustekabeen eman dizkio goraintziak Clararen partetik. Gustura ikusiko lukeela gaineratu du. Luisa zur eta lur geratu da; Clara Matilderen etxetik joan zenetik, ez du haren berri izan. Bost urte igaro dira geroztik. Lizarrara itzultzeko asmoa zuela esan zion agurtu zuenean, baina, handik gutxira, ahizpa bisitatzera joan eta, Clara etxetik joana zela esan ziotenean, harritu egin zen; edonola, ez zuen gehiago galdetu nahi izan, bazterrak ez nahastearren. Orduko hartan ere, Martinen galdera egin zion Luisak Micaelari. Artean etxean ez zekiten sobietarrek preso hartu zutela.

Luisak ez dio Matilderi inoiz aipatu Martinek bost urte daramala preso konzentrazio-esparru batean. Kartzelaratu zutenetik, etxean jaso dituzten gutun apurretan kontatuta dakite bizimodu latza daramala; horregatik-edo, Estebanek ez dio anaiari jakinarazi Dibisio Urdinean engaiatu eta handik bi urtera hil zela Jesus Larrinagako kartzelan. Estebani min ematen dio anaien aipamen hutsak. Gerrak Aramendiatarren etxera ezbeharrak baino ez duela ekarri errepikatu ohi du oraindik ere. Bederatzi urteko Nieves da Estebanen nahigabearen aringarri bakarra; bidean dagoen umeak, berriz, bizi-poza berri du Micaelari. Ahizpa esperoan dagoela jakin berri du Luisak.

Soinekoa amaitzeko azkeneko probak egitera etorri da Victoria Matildereguna. Sanferminetan estreinatuko du, Kasinoko dantzaldian. Josten hasi aurretik, patrioiak ondo ebaki dituela ziurtatzeko, neurriak hartu dizkio beste behin: altuera, bular ingurua, gerria eta aldaka. Matilderi ez zaio damutzen jostunaren aholkuei jarraitu izana, berri-ontzi begi-luzeren batzuek soinekoa probokatzaila dela esango badute ere. Corpus egunean emakumezkoek Kasinoko dantzaldian estreinatu zituzten soinekoak beti bezain zaharkituak iruditu zitzaizkion Matilderi.

Ura derrotean edan eta egongelara itzuli da Victoria. Matildek irratia piztuta dauka. Esataria bidea ematen ari da *Iruñerías* saioko entzuleen deiei. Jostunak ederki asko ezagutzen du Radio Requeteren sintonia. Echalucetarrak eta beretarrak aurkako bandoetan daudela gogorarazi dio horrek eta baita sukaldetik iristen ari zaion kafe torrefaktuaren usainak ere, etxean gosaritarako hartzen duten txikoria-uraren batere antzik ez duenak.

Victoria neska koskorra zela hasi zen gurasoekin sozialisten egoitzara joaten. Bertan ikasi zituen lehenengo letrak irakurtzen. Asturiasko langile matxinadan parte hartzeagatik San Kristobal gotorlekura zigortutako gizonei laguntzen aritu zen aita, Nazioarteko Sorospen Gorriko kide zelarik, eta 1936 urteko otsailean Fronte Popularrak hauteskundeak irabazi eta presoak askatu zituztenean, Victoria kartzelaren atean zegoen. Artean, hamalau urte besterik ez zituen.

Matilderen galderari erantzunez, jostunak ziurtatu dio soinekoa hamar egun barru prest egongo dela. Matildek esan dio adostutako berrehun pezetak orduan ordainduko dizkiola. Luisa bidaliko omen du bila. Victoria larritu egin da: Carmenek esanda dauka etxera inor ez eramateko, arriskutsua izan daitekeela.

Senak kontrakoa esan badio ere, entzungor egin dio zuhurtziari eta etxeko helbidea eman dio, horrenbestean, Luisak eta Clarak elkartzeko modua izango dutelakoan.

Matilde, besaulkian eserita, *El hogar y la moda* aldizkariari begira geratu da. Hilabetekariak berdin eskaintzen ditu parpaila egiteko nahiz etxea dekoratzeko oinarrizko ezagutzak, edota senarrari jaki goxo bat prestatzeko moduak, hala nola maitasun-aholkuak. Eguzki-bainuei buruzko jarraibideen atala irakurtzen ari da: portzelanazko panpina itxurako modeloei bainujantziek gorputza oso-osorik estaltzen dizkiete. Matilderi gogora etorri zaizkio Biarritzeko hondartzan ikusitako emakumeak, erreparorik gabe eguzkia hartzen eta bainatzen.

Tristeak eta antigoalekoak begitantzen zaizkio Aldizkariko diseinuak. Aspertuta dago krespoidun jantzi zurrunez, sorbalda zabaleko alkandora-itxurako soinekoez eta beltz, gris, itsas urdin edo berde ilun ez beste gona toledunez. Higuina ematen diote azeri larruzko lepodun berokiek.

Victoriak *Vogue* aldizkaritik ateratzen omen ditu ideiak. Matilde hasieratik konpondu da jostunarekin. Oihalaren kolorea aukeratzen ari zirela, gogotik barre eginarazi zion apaizaren imintzioak eginez, moda moja eta fraideek ezartzen zutela esan zionean: “Ez da onargarria soinekoek hankaren zatirik handiena ez estaltzea, ez da onargarria belaunetik gorakoak izatea. Ukalondorainokoa ez bada, besoa estaltzen ez duen mahuka janzteia ere apaltasunaren aurkakoa da. Eta pantiak ez janzteia guztiz da umiltasunaren aurkakoa. Eskoteak, berriz, bekatuzkoak dira”. Bere kastako emakume atzerakoi eta argizari-jaleak ez bezalakoa iruditzen zaiolako hartu dio, akaso, jostunak estimua Matilderi. Esango luke, here jarrera gogor eta hantustearen atzean, nolabaiteko gogo menderakaitza ezkututzen dela.

Clarak ohartarazi dio behin baino gehiagotan andreari konfiantzarik ez emateko, belar txarra baino zitalagoa dela, agintzailea eta senarrarekin bihozgabe hutsa; behin baino gehiagotan galdu omen zion begirunea bere aurrean. Victoriak behin egin du topo etxean Segundorekin: agurtu besterik ez zuten egin. Matildereren ondoan, zatar antzekoa iruditu zitzaion. Jostunak begi zorrotza du eta esango luke, metro-zintaren beharrik gabe, bi zentimetro txikiago badela.

Salan daude lau emakumeak; Carmen falta da. Astean birritan elkartu ohi dira Victoriaren etxean, josteko batzuk eta itxurak egiteko besteak. Ezkontza-puskak egiten ari direla esaten diete galdetzen dietenei, haietako inork ezkontzeko asmo argirik ez badu ere. Benitaren burutazioa izan zen. Behin baino gehiagotan egiten dituzte txantxak arreoaren kontura: “Baten batek ezkondu beharko du gezurretan harrapa ez gaitzaten”. Eta azken boladan, Clarari begiratu ohi diote zeharka; lagunek antzeman diote Doraren neba gustuko duela.

Victoriak gerran galdu zuen senargaia, Ebroko frontean. Dolu urteak pasata, Santiri hasi zitzaion maitasunez begiratzen, eta baita erreparoz ere, gaztea delako bere aldean. Benita esan eta esan ari zaio sanferminetako dantzaldiak baliatu behar dituela hurbiltzeko.

Benitak ezkongabetasunaren aldarria egiten du aukera duen guztietan. Bere lanari esker bizi delako dago harro: “Ni ez naiz inortxoren bizkarretik bizi – gizonez ari da–, eta baten bat zerbitzatu behar badut, ordaindu diezadatela”.

Hamabost urterekin hasi zen Gran Hotelean lanean, eta berak dioen bezala, pianoarekin batera eraman zuten La Perlara, “dudarik gabe etxeko piezarik preziatuenak”. Behin bakarrik eta betiko maitemindu zen, baina aipaezina beste neska batekin endredatu zen elkarrekin hasi eta berehala, eta orduantxe amaitu ziren Benitaren maiteminak. Bere buruari agindu zion ez ziola emango beste inori halako nahigaberik emateko aukerarik. Dora eta Fernandorena, berriz, filmetako maitasun istorio eder horietako bat iruditzen zaio Benitari: gerra-kontseilua egiten ari zitzaizkiela eman zioten elkarri ezkon-hitza.

Gelaren erdian, mahaian zabaldua daude oihal zatiak, orratzak, iskilinbak, guraizeak eta hariak; hala nola bizpahiru titare, metro-zinta, marka-harria eta klariona, eta orratzontzia. Beste mahai txiki batean, Victoriak txukuntxukun jarrita dauzka manila-papera, egurrezko erregelak eta eskuairak, arkatza eta libreta bat. Apaingarririk gabeko arasa zahar batean dago lisaburdina, Santa Luziaren estanparen ondoan, Doraren esanetan, etxean onartzen den santa bakarra. Alboan, aldizkariak daude, pilo batean jarrita: *El hogar y la moda* goialdean eta *Vogue*-ak azpialdean. Victoriari oso ongi datozkio diseinu berriak sortzeko, modako aldizkariak alderdiaren buletinarekin batera helarazi izana Carmeni arduragabekeria iruditu zitzaion arren.

Benita nekatuegi dago izarei hariak ateratzen jarraitzeko; ez dauka behar beste pazientziarik bainika egiteko. Altxatu eta nahas-mahas dauden aldizkariak txukuntzen hasi da. 1940 urtekoa da zaharrena, Victoria, Dora eta Carmen elkar ezagutu eta jostunaren etxea azpilanetarako erabiltzen hasi zirenekoa. Begirada bat ematen hasi zaio. Hollywoodeko izarren aipamanaren harira, Rita Hayworth-en izena entzun duenean, sabela estutu zaio Victoriari: izar estatubatuarraren estiloa eta dotorezia izan zuten hizpide Matildek eta biek aurreko batean. Ez die lagunei esan etxeko helbidea eman diola.

Preso jarraitzen duen Fernandorekin gogoratu da Dora. Berak ere nahiko luke senarrarekin edonora joan, aske izan. Jende xehea zapalkuntzatik askatu eta libre izateko egin du, hain justu, beti borroka. Toledokoa da eta duela hamaika urte etorri zen aurrenekoz Iruñera, alderdi komunistaren berrantolatze lanetan laguntzera, hiru urte Ventaseko kartzelan eman ondoren. Horrela ezagutu zuen Fernando. 1943 urtean atxilotu zituzten taldekide guztiak, *Trilita* ezizeneko polizia batek Fernandori amarrua egin ondoren.

Dora gurutze-puntua egiten ari da mahai-zapi batean, denbora pasatzea beste asmorik gabe. Clara gona baten barrena albaintzen saiatzen ari da, Victoriak eskatuta. Josten ikastea ondo etorriko zaiola esan dio askotan, etxerako sikiera, baina Clara ez da batere trebea; nahiago du Carmeni baimen faltsuak egiten lagundu. Haiei esker, zeharkatu ahal izan du iheslari batek baino gehiagok muga. Oso iaioa da sinadurak antzeratzen eta argazki faltsuak arrastorik utzi gabe itsasten.

Dora bere bigarren kartzelaldian Segovian zegoela, ezagutu zituen Clarak Carmen eta Victoria, Matildereren etxea utzi ondoren. Lizarrara itzuli zen gurasoengana baina berehala bueltatu zen Iruñera, beste etxeren batean lanean hasteko aitzakiarekin. Ordurako erabakita zeukan faxisten aurka borroka egingo zuela. Aitari kontatzekotan egon zen, baina, jeltzalea izateaz gain, fededuna da oso, eta ziur aski, ez du ontzat emango. alaba jainkogabeekin nahastea.

Jarauta kaleko jostunarekin Santiren bitartez jarri zen harremanetan; Matilderenean lan egiten zuenetik ezagutzen zuen. Clararen isilpeko aurreneko egitekoa *Reconquista de España* egunkaria banatzea izan zen, Frantzian

alderdi komunistak editatu eta Iruñeko taldeak tipula-paperean *Amayur* izenburuko gehigarri batekin argitaratu duena: "NAFARROAKO ASKATASUNAREN BOZERAMAILE, EUZKADIKO MATXINADAREN OIHUA, GARAI PEN HURBILAREN IRRINTXIA".